

## Demokrazia: Hautestontziez harago



1. Zertan ari dira argazkietako pertsonak?

---

---

2. Zergatik uste duzu ari direla hori egiten?

---

---

3. Zertan dira berdinak ekintza guzti hauek?

---

---



## PARTE HARTZEAK

Guztion ongizatearen diseinu eta gestioan aktiboki esku hartzea esan nahi du, norbere interes eta proiektuetatik ateratzea esan nahi du, taldearen proiektuak bereganatzea interes, erantzukizun, ardura eta koherentziaz lantzeko.

### 4. Eta zeuk, nola hartzen duzu parte?

Etxean	
Eskolan	
Lagun taldearekin	
Aisialdian	
Auzoan, herrian	

### 5. Hauetariko ekintzetatik, zeinetan parte hartzen duzu boluntarioki?

---

---

---

---

---

### 6. Zergatik uste duzu garrantzizkoa dela parte hartzea aipatu kasu bakoitzean?

---

---

---

---

---

## 2. Erabaki zaila



Bi urte dira Omar auzoko saski baloi taldean jokatzen duela. Aurtengo denboraldian maila igo dute. Talde barruan, Omar oso jokalaria garrantzitsua da eta entrenatzaileak konfiantza handia du harengan. Txapelketaren azken txanpan dira eta mailari eutsi behar diote. Aspaldi lortu zituen Omarrek institutuko lagunekin gogokoen duen taldea ikusteko sarrerak, baina kontzertua ostiralean izango da eta larunbat goizean egin ohi dute arratsaldeko partida prestatzeko saioa. Omar dudatan dago.

7. Arazorik ba al da egoera honetan? Nork edo nortzuk daukate? Zein da zehatz-mehatz bakoitzak duen arazoa?

---

---

---

---

8. Ze alternatiba du Omarrek? (Asmatu ahal bezain beste)

---

---

---

9. Zeintzuk izango lirateke alternatiba bakoitzaren ondorioak?

---

---

---

10. Bukatzeko, eztabaidatu eta erabaki denon artean aho batez zein izango litzateke aukera onena.

---

---

---

---

---

---

# 3. Gaur delegatua aukeratuko dugu



Institutuko bigarren hezkuntzako 4. zikloko ikasgelan gaude eta heldu da, ikasturte hasiera guztietan bezala, delegatua aukeratzeko momentua. Denon artean, tutoretza orduan, taldearen ordezkariak izan behar dituen ezaugarrien zerrenda egingo da.



Hausnarketaren ondoren, hautagaien ordua da, Aída, Jaime eta Endikak aurkeztea erabaki dute.

Aída: bigarren hezkuntzako laugarren zikloko ikasleen artean curriculum onenaren jabea da, baina ez du elkarrizketarako joera handirik eta beti gertatu izan da zail harekin lan taldean aritzea.

Jaime: aurten heldu da institutura etxez aldatu delako. Oraindik ez du lagunik egin baina arin hasi da auzoan parte hartzen.

Endika: institutuko neska-mutilen artean oso ezaguna da baina izaera zaila du, batzuetan beste pertsona batzuekin eztabaida bortitzak izan dituelarik.

Bozketaren ondoren Endika delegatu izendatu dute.

**11. Zer deritzozu bozketaren emaitzari?**

---

---

**12. Taldearen akordioak errespetatu dira? Akordioak garrantzitsuak direla uste duzu?**

---

---

---

**13. Botoen artean bada zuririk. Zer uste duzu?**

---

---

---

**14. Zergatik da garrantzizko gure ordezkariak aukeratzen jakitea?**

---

---

## 4. Zer dira hauteskundeak?



“Hauteskundeak, hiritarrek botere politikoaren erabileran ordezkatzeko gaituzten pertsonak aukeratzeko darabilgun prozedura dira”.


### Baina... nola antolatzen da prozedura hori?

Alderdi politikoak eta koalizioak dira hauteskunde lurralde muga bakoitzerako hautagaien zerrenda itxiak aurkeztuko dituztenak. Jesarlekuen banaketa lurraldearen arabera da kasuan kasu, baina beti ere biztanle gutxiago duten lurraldeei abantaila eskainiz.

**Informazio gehiagorako: [www.eleweb.net/elecciones.htm](http://www.eleweb.net/elecciones.htm)**

Hauteskunde kanpaina bitartean, alderdiek, komunikazio estrategia ezberdinen bidez, gobernurako proposamenak batzen dituen programa aurkeztuko dute.

Kanpaina eta gero, bozketa eguna helduko da eta, ondoren, botoak zenbatzeko momentua.

-  15. 2000ko martxoaren 12ko Diputatuen Kongresurako hauteskunde orokorren emaitzak aztertu eta adi egon boto kopuruaren eta jesarlekuen arteko harremanari. Ondoren, kalkula ezazu zenbat boto behar duen alderdi batek jesarleku bat lortzeko.

2000ko martxoaren 12ko Hauteskunde Orokorretako Emaitzak – Espainian guztira			
Errolda	33.969.640		
Boto emaileak	23.339.490	% 68,7	
Baliogabeak	158.200		
Baliodunak	23.181.290		
Zuriak	366.823		

Hautagaiak	Botoak	%	Jesarlekuak
Partido Popular (PP)	10.321.178	44,5	183
Partido Socialista Obrero Español-Progresistas (PSOE-Progr.)	7.918.752	34,2	125
Convergència i Unió (CiU)	970.421	4,2	15
Izquierda Unida-Esquerra Unida i Alternativa (IU-EUiA)	1.263.043	5,4	8
Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco (EAJ-PNV)	353.953	1,5	7
Coalición Canaria (CC)	248.261	1,1	4
Bloque Nacionalista Galego (BNG)	306.268	1,3	3
Partido Andalucista (PA)	206.255	0,9	1
Esquerra Republicana de Catalunya (ERC)	194.715	0,8	1
Iniciativa per Catalunya-Verds (IC-V)	119.290	0,5	1
Eusko Alkartasuna (EA)	100.742	0,4	1
Chunta Aragonesista (ChA)	75.356	0,3	1
Unió Valenciana (UV)	57.830	0,2	0
Partido Aragonés (PAR)	38.883	0,2	0
Beste batzuk	639.504	2,8	0
<b>GUZTIRA</b>			<b>350</b>

## 16. D'Hondt Legea

Aukeratutako hautagaiak, boto kopuruaren arabera, zein alderdiri dagozkion kalkulatzeko, D'Hondt legea izeneko sistema proportzionala erabiltzen da, alderdi handienei eta boto gehien jaso dutenei abantaila ematen diena. Baina jesarlekuen banaketan parte hartu ahal izateko gutxienez lurraldeko baliodun botoen %3 jaso behar da. Portzentaia hori baino gutxiago jasotzen duten hautagaiak ez dira kontutan hartuko.

Lege honen arabera, alderdi bakoitzak jasotako boto kopurua 1,2,3,...-ren artean zatitu behar da lurralde bakoitzean aukeratu behar den diputatu zenbakira heldu arte. Emaitzak handienetik txikienera ordenatu eta handienak aukeratuko dira.

### Adibidez:

Palentziako lurraldean, hauteskunde orokorretan izaniko emaitzak imajina ditzagun, 3 diputatu dagozkiola jakinik:

Zatiketa	PSOE	PP	IU
1	50.720	43.059	23.784
2	25.360	21.529	11.892
3	16.906	14.353	7.928
Jesarlekuak	2	1	0

# 5. Gazteek politikaz paso dute?



Gure gizartean parte hartzeko aukera bat partaidetza politikoa dugu.

Formalki, 4 urtean behin hauteskundeetan bozkatu egiten dugu (udalekoak, autonomikoak edo estatukoak) legegintzarako asanblada ezberdinetan izango ditugun ordezkariak aukeratzeko. Ordezkariok, gure izenean, gure gizartean ondorio on ala txarrak eragin ditzakeen erabaki garrantzitsuak hartuko dituzte. Hauteskundeetan parte hartzea hiritar garenez gero dugun eskubidea da, baina beharra ere bai. Dena den, mundu guztia ez dator bat botoaren balioarekin. Eztabaida-rol jokoa proposatu nahi dizuegu honako lelopean:

## Bozkatzen ez duena oker dabil?

17. Eztabaida ordenatu eta zabalaren bidez zuen taldearen argudioak azaldu, mintza zaitetze gainontzeko lagunekin eta eztabaidako galderari egokiro arrazoituz erantzun.

**1. taldea:** Gehiengoa duen alderdiaren aldeko neska-mutil taldea osatzen duzue, bozkatzeko beharra defendatzen duena. Botoa zeini emango diozuen ondo argi daukazue.

**2. taldea:** Gutxiengoa osatzen duen alderdiaren aldeko neska-mutilak zarete. Botoa emango diozuelakoan zarete, baina zuen botoa baliogabekoa izango dela esaten ari zaizkizue alderdiak ez omen duelako ordezkariarik lortzeko beste boto izango edo, izatekotan, diputatu gutxi izango duelako.

**3. taldea:** Abstentzia defendatzen duen neska-mutil taldea zarete, partaidetzarako eta elkarrizketarako aukera mugatua eskaintzen duen alderdi sistemaren funtzionamenduarekin bat ez zatozelako. Gainera, benetako demokrazia partaidetza politikoaz harago lortu behar dela uste duzue. Gizarte mugimendutan parte hartu behar dela pentsatzen duzue (ekologistak, feministak, auzo elkarteak, GKE,...) gizartean aldaketak eragiteko proposamen zehatzak aurkezten dituzten bakarrak direlako.

**4. taldea:** Abstentzia defendatzen duzuen neska-mutilak zarete, zuek zer esanik ez daukazuela uste duzuelako. "Paso egitea" nahiago duzue politikariengan eta politikan konfiantzarik ez daukazuela (etekina ateratzen diotenentzat baino ez baita onuragarri). Zuen arazoak konpontzea zuen esku besterik ez dagoela uste duzue.

## 6. Eta zeuk, nola parte har dezakezu?

18. Ekintza guzti hauek egin ondoren eta parte hartzeak zer esan nahi duen hobeto jakinda, hasierako ariketan agertzen zen koadroa errekeratzea proposatu nahi dizugu eta saia zaitez betetzen egiten ez dituzun baina egiteko gai zinatekeela uste duzun ekintzekin. Azaldu, halaber, nola egingo duzun denon ongizatearen alde horien bitartez.

Etxean	
Eskolan	
Lagun taldearekin	
Aisialdian	
Auzoan, herrian	